

# Jarrerak eta balioak

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Diabetesa izatea ez da...

IRAKASLEA

IKASLEAK

1/4



[www.fundaciondiabetes.org](http://www.fundaciondiabetes.org)

## ANDRESEN AKATSA

Azken aldi honetan Borjak ez du barrerik egiten, ezta zirkoan ere. Orain dela hilabete diabetesa zuela esan zioten eta bere amak horregatik dela uste du, baina, oker dago.

Andresek, Borjaren lagunik minenak, ez du harekin jolastu nahi jolas-orduetan eta Borjak futboleko jolasteko deitzen dionean ez duela gogorik esaten dio. Horregatik dago triste Borja.

Ordura arte elkarrekin ibiltzen ziren beti. Dena elkarrekin egiten zuten. Aitak zinemara edo arrantzara joango al ziren galdetzen zionean, Borjak galdera bera egiten zion beti: "Andres gonbida al dezaket?"

Ez daki zergatik dagoen hain arraro. Andres oso serio zegoen ikaskide guztiak, baita Marta irakaslea ere, ospitalera bisitan joan zirenean. Izugarri ongi pasa zuten bere izeba-osabek operitu zizkioten jostailuekin! Baina, bere lagunik minenak ia ez zion kasurik egin.

Martak ere nabaritu du Andresen aldaketa eta berari galdetzea erabaki du.

-Haurrak, jolas-ordua da dagoeneko. Andres, gera zaitetz unetxo bat mesedez.

Andres bere mahaian eserita geratu da. Ez daki irakasleak zergatik eskatu dion geratzeko.

- Azken aldi honetan oso serio zaude. Zerbait gertatzen al zaizu?
- Mmmmm
- Custura etortzen al zara eskolara?
- Bai
- Zerbait gertatu al da zure etxean?
- Ez
- Caixo al zaude?
- Ez
- Borjagatik al zaude horrela?

# Jarrerak eta balioak

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Diabetesa izatea ez da...

IRAKASLEA

IKASLEAK

2/4



[www.fundaciondiabetes.org](http://www.fundaciondiabetes.org)

- Mmmmmmmmm
- Haserretu egin al zarete?
- Ez
- Andres, euro bat emango dizut jarraian lau hitz baino gehiago egiten badituzu.
- Jo, Marta! Nolako gauzak bururatzen zaizkizun -esan zuen irribarre txiki bat eginez-.
- ... Diabetesagatik al da?

Andresek burua makurtu du eta ezker begian duen malkoari eusteko ahaleginetan ari da.

Marta oso azkarra da (horregatik da irakaslea) eta berehala konturatu da Andresen kezka bere lagunaren diabetesarekin zerikusia duela.

- Baina, Andres, Borja ongi dago. Ez al duzu ikusten?
- Bai, baina, egunero ziztatu behar du. Drogatzen direnak ere ziztatu egiten direla dio Pedrok.
- Ez duzu ba pentsatuko Borja drogazalea denik, ezta?

Egia esan Andresek pentsatu izan du hori. Harentzat ere dena berria da. Baina, aurreko batean ama izeba Elenarekin telefonoz hitz egiten entzun zuenetik ez du hori pentsatzen. Egunero ziztatu behar izaten zuen gizon bati buruz ari ziren hizketan.

- Ez, ez dut uste. Baina...
- Esadazu, maitea.
- Aurrekoan nire ama izebarekin hizketan ari zen eta oso gaixotasun latza dela entzun nion; gizon bat gaixotasun haren ondorioz hil zela. Eta lehenengo itsu geratu zela.

Ezin izan dio ezkerreko begian zuen malkoari gehiago eutsi eta, eskuineko begian gordeta zituen beste bi malkorekin batera, ihes egin dio.

- Borja nire lagunik minena da eta ez dut nahi ezer txarrik gertatzerik.
- Baina, Andres, oso oker zaude. Borjak diabetesa du, baina horrek ez du

# Jarrerak eta balioak

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Diabetesa izatea ez da...

IRAKASLEA

IKASLEAK

3/4



[www.fundaciondiabetes.org](http://www.fundaciondiabetes.org)

esan nahi itsu geratuko denik eta, are gutxiago, hil egingo denik.

- Ah, ez? -erantzun dio Andresek tentel aurpegia jarritz.
- Ez gizona. Diabetesa izateak gehiago zaindu behar duela eta intsulina injektatu beharko duela esan nahi du. Besterik ez. Lehen egiten zituen gauza berberak egiteko behar du intsulina: futboleak jolastu, ikasi, korrika egin, bizkarra ematen dizuedanean niri adarra jo...

Andresek irakaslea sorgina dela pentsatu du. Nola jakin dezake bestela Borjak eta biek imitatu egiten dutela begira ez dagoenean?

Hala ere, ez da guztiz lasaitu. Lotsa ematen dio onartzeak, baina, orain da bere kezka azaltzeko unerik egokiena:

- Cainera, beldur naiz kutsatuko ote nauen.

Ospitalean izan zirenetik zegoen kezkatuta. Kutsatuko ote zuen beldur zen eta, horregatik, bere osasunak lagunarenak baino gehiago kezkatzen zuelako, pertsona txarra zela uste zuen.

Martak harrituta begiratu dio. Azkenean ulertu du. Hori zen Andres kezkatzen zuena! Oso une txarra pasatzen ari dela pentsatu du Martak, eta unetxo batez besarkatu egin du.

- Andres, maitea, diabetesa ez da gaixotasun kutsakorra.
- Beraz, ez naiz gaixotuko berarekin jolasten banaiz?
- Ez.
- Eta borroketan jolasten bagara?

Andresek gogorarazi dio irakasleari piratetara jolastea gustatzen zaiela eta beti parkeko belarretan zilipurdika amaitzen dutela.

- Odoletan amaitzen baduzue ere ez zara kutsatuko.
- Zin egiten didazu ez dela itsu geratuko eta ez dela diabetesaren ondorioz hilko?
- Zin egiten dizut.

# Jarrerak eta balioak

Zikloa: 1.a, 2.a eta 3.a

Caia: Diabetesa izatea ez da...

IRAKASLEA

IKASLEAK

4/4



[www.fundaciondiabetes.org](http://www.fundaciondiabetes.org)

Andresi aurpegia aldatu zaio berehala. Betiko haur alaia da berriz ere.

- Orain joan zaitez jolastera, oraindik 10 minutu falta dira eta.

Martak Borjaren medikuari deitzea erabaki du. Hark hobeto azalduko die bere ikasleei zer den diabetesa. Ez du horrelako beste ezustekorik izan nahi.

Bitartean, Borjak ia ez du ogitartekoa probatu ere egin. Luisak proposatu dion arren (ez dakizu zein polita den neska hori) ez du harrapaketetan jolastu nahi izan, eta Miguel bere ondoan eseri denean ez dio hitzik ere egin.

Bat-batean klaseko atearen kirrinka entzun du (ea behingoz olio pixka bat botatzen dioten, ikasturte guztia horrela darama eta). Begiak altxatu ditu eta norbait zitzu bizian beregana datorrela ikusi du. Andres da. Andres da bere gainera bota eta besarkatu eta hankaz gora bota duena. Andres da jolastokiko lurrean zilipurdika dabiltzan artean barrez ari dena.

Borja harrituta dago eta ez daki zer egin. Martarekin hitz egiten ari zen artean gauza garrantzitsuren bat gertatu zaiola pentsatu du. Ez daki zer gertatu den, baina bera pozik dago. "Zer gertatu den galdetu behar diot gero", pentsatu du. Orain badu nahikoa lan bere lagunarekin zilipurdika.

Biak barrez lehertu beharrean dabilta lurrean jira eta bira. Miguel haiei begira dago. Erotuta daudela pentsatu du. Eta ikasgelara begiratu du Martak errieta nola egiten dien ikusteko. Orain bai ez duela ezer ulertzen. Marta ikasgelan dago, leihotik begira, eta barrez ari da telefono zenbaki bat markatzen ari den bitartean.